

baikara



Gipuzkoako IGEen federazioa

2024 / Abendua

ESKOLA KONTSEILUEN GARRANTZIA



**Musika gela
arranca esta
temporada con
fuerza y ofrece
más de 70
actividades**



**Tolosaldeko
Euskal Eskola
Publikoa Harro
plataforma**

gabonak zurretzat

2024



Magia
Jolasak
Dantza
Eskalada
Robotika
Sukaldaritza...

Ekintza pila... Aukeratu zurea!
Un montón de actividades...
¡Elige la tuya!

HAURRAK



GAZTEAK





4-5 Eskola kontseiluen garrantzia

6 Deskonektatuak proiektua.

7-8-9 Euskal Eskola Publikoaren ikasturtea argazkietan.

10-11 Musika gela arranca esta temporada con fuerza y ofrece más de 70 actividades.

12 Deseraikiz, sexu aniztasunari buruzko prestakuntza eskaintzen duen programa.

13 Tolosaldeko Euskal Eskola Publikoa Harro plataforma.

14 “Familiarekin jolasean” gabonetan ere.



BAIKARA FEDERAZIOA

Es la Federación de Asociaciones de Madres y Padres (AMPAS) de los centros de la enseñanza pública no universitaria de Gipuzkoa. En la actualidad están asociadas a la Federación 156 AMPAS, lo que representa más del 93% del total de AMPAS de Gipuzkoa. Por ello **BAIKARA** es la representante y portavoz del colectivo mayoritario de madres y padres del alumnado de los centros públicos de Gipuzkoa, actuando como tal en las negociaciones y foros en los que se debate y deciden los diferentes aspectos que puedan afectar a la educación pública en Gipuzkoa.

www.baikara.org

Gipuzkoako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako guraso elkartearen (IGEen) federazioa da. Gaur egun, 156 IGE dira Federazioko kide, hau da, Gipuzkoako IGEen %93 baino gehiago. Horregatik, **BAIKARA** da Gipuzkoako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen ordezkari eta bozeramaile nagusia, eta hala jarduten du Gipuzkoako hezkuntza publikoan eragina izan dezaketen hainbat alderdi eztabaidatzen eta erabakitzen diren negoziatioetan eta eztabaidetan.



Baikaragurasoak



@BaikaraF

baikara 

Gipuzkoako IGEen Federazioa

ARGITARATZAILEA: BAIKARA FEDERAZIOA

Baso-Txiki Kalea, 36, atzealdea. 20015 Donostia. **Tfno.** 943327208. **Fax.** 943274977.

e-mail: baikara@baikara.eus / rosa@baikara.eus

Koordinatzailea: Rosa Izquierdo. **Diseinua:** Baneu Estudioa (@baneu.estudioa). **Inprimatzailea:** Comeco Gráfico. **Lege gordailua:** ISSN 1697-9109

ESKOLA KONTSEILUEN GARRANTZIA



Bi urtean behin, eskola kontseiluetako kideen erdiak berri egin behar dira eta horixe gertatu da aurten. OOGak ikastetxeen partaidetza eta erabaki-organismoak dira. Bertan hartzen ditugu hezkuntza-komunitateko kideok gure ikastetxeari dagozkion erabaki garrantzitsuenak. Familien ordezkari garen aldetik, gure zeregina da gure ikastetxeko familien kezkek eta proposamenak jasotzea, organo horri helarazteko.

Eskola Kontseiluak hezkuntza komunitatearen ordezkari izateko diseinatuta daude: familiak, ikasleak, irakasleak eta zuzendaritza taldea, AZP, Udala.

Ikuspegi ezberdin horrek egiten ditu hain baliotsu. Alderdi interresdun horiek tartean sartuz, Eskola Kontseiluek gardentasuna, ekitate eta hezkuntzaren kalitatea sustatzen dituen lankidetzagiroa bultzatzen dute.

Zergatik da garrantzitsua guretzat, guraso garen aldetik, Eskola Kontseiluetan parte hartzea? Izan ere, hori egin ez gero, honelako gai garrantzitsuak ezagutu, horiei buruzko iritzia eman eta ekarpenak egin ditzakegularako:



- Gure eskolako hezkuntza jarduera: irakasleak, osagarriak eta eskolaz kanpokoak.
- Ebaluazioen emaitzak, barnekoak zein kanpokoak, eta emaitzak hobetzeko planak.
- Hezkuntza Sailak proposatzen dituen proiektuak.
- Hobekuntza lanak sustatzea eta horien jarraipena egitea (sukaldea, patioa estaltzea..)
- Eskola ordutegia eta egutegia finkatzea.
- Jantokia kontrolatu eta hobetzea.
- Familientzako interesgarriak diren eztabaidagaiak proposatzea.

Eskola Kontseiluetako kide garen gurasoak garen aldetik ere, argi izan behar dugu zeintzuk diren haien eskumenak, zeintzuk diren gure eskumenak Eskola Ordezkaritza Organo Goreneko kide garen aldetik. Lehenik eta behin, ikastetxearen hezkuntza-proiektua, plana eta urteko memoria onartzeko parte aktiboa gara, eta horien garapena eta emaitzak ere ebaluatzen ditugu. Era berean, zuzendaritzaren proposamenez eta ekimenez egindako hezkuntza-komunitatearen parte-hartze arauak eta horiei dagozkien aldaketak ezartzen dituen antolakuntza eta jardueraraudia onartzean ere bermatzaile gara. Ikastetxearen aurrekontua onartzen dugu, baita gauzatzearen inguruko kontuak eman ere. Eskola-jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak programatzeko gidalerroak eta inguruko beste ikastetxe eta erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzan aritzeko irizpideak onartzeko prozesuan ere parte hartzen dugu eta ez dugu ahaztu

behar, ikastetxeko zuzendariaren hautaketan ere parte hartzen dugula.

Eginkizun horiek betetzeko, Eskola Kontseiluak hainbat batzorde era ditzake. Batzorde horiek eta beren eginkizunak ikastetxeko AJAn jasoko dira. Batzorde iraunkorraz gain, ikastetxearen funtzionamendua hobetzen laguntzen duten batzordeak dira: jantokiko batzordea; material didaktikoen eta curriculum garatzeko baliabideen batzordea; Ikastetxearen Urteko Planaren (IUP) jarraipen batzordea eta izikidetzatza batzordea. Laster ezagutuko duzue «OOGetan parte hartzeko gurasoentzako gida» berria eguneratua. Bertan, Eskola Kontseiluei buruzko araudi guztia aurkituko duzue, bai eta ohiko zalantzei erantzuteko atala ere. Adi gure sare sozialei!



“DESKONEKTATUAK” PROIEKTUA

Mugikorren eta plataforma digitalen erabilera ludikoa, behar baino lehenago eta behar ez bezala erabiltzeak, harreman zuzena dauka antsietate eta depresioarekin. Gaur egungo gazteek, batz bestea, 5/6 ordu erabiltzen dute egunean. Erabilpen desegokien ondorioetako batzuk honako hauek dira: konparazioa eta frustrazioa, autoestimua zigortzen du, dopamina dosietan aldaketak, mendekotasuna, isolamendua, eduki kaltegarrien normalizazioa, gutxiago eta okerrago lo egitea, osasun mental on baterako funtsezkoak diren jarduerak baztertzea edota nahasmendu kognitiboak. Gai hau gazteekin lantzeko sortu da “DESkonektatuak” proiektua.

Saioak ordu betekoak dira, DBH 1-eko ikasleentzat zuzenduak. Gela barruan egiten da eta 15 minutuko mikroantzerkiak eta 45 minutuko tailerrak osatzen dute. Amaia Ruiz de Galarreta eta Esti Curiel aktoreak dira programaren arduradunak.

Jardueraren bitartez gazteak, identifikatuak sentitzeko, bi lagun eguneroko egoerak ikusten dira antzerkiaren bitartez. Eki-men honekin, teknologiak ematen dizkieten abantailak eta desabantailak lantzen dira.

Eszena desberdinen bitartez, gai anitz aztertzen dira, hala nola: familia egoerak, lagun arteko erlazioak, errealitatea eta cyber espazioa. Era honetan gure bizitzetan teknologiak zer eragin duen azaltzen da modu zuzen eta bisual batean.

Ikasgelan bertan gertatzen da dena eta mikroantzerkia ikusi



ondoren, teknologiarekiko ditugun bizipenak modu parte hartzailean lantzen dira, Zapalduen Antzerkia eta PIBE metodoak erabiliz. Ariketa, joko eta inprobisazioen bitartez ikasleen parte hartzea bultzatzen da.

“DESkonektatuak” proiektua Donostiako udaleko Hezkuntza Atalak antolatutako programa da eta abendua bitartean Donostiako ikastetxe publiko hauetan lantzen ari da: Altza, Lauaizeta, Zubiri Manteo, Bideberri eta Antigua-Luberri.





Hernaniko Institutuko 1. mailako hiru ikasle geologiako txapeldun



Arnasetik bideo lehiaketaren publikoaren saria, Zaldibia herri eskolara



"Aniztasunaren zaporeak" azoka Orokieta eskolan



Elgoibarko Herri Eskolako patioaren estalkia eraberritu dute



Zumaiak gune berrituak inauguratu ditu Herri Eskolan



Urdaneta eskola publikoko ikasleen bisita Ordiziako Azokara



Andoaingo Ondarreta eta Leitzarango ikasleek udalerriko diagnostikoan parte hartu dute 2030 Eskola Agendan



Tolosako Samaniego eskola aitzindaria izan zen Joxe Migel Barandiaran ikertzailearen lanean oinarritutako proiektu batean



Herriko ikastetxe publikoek Altxa burua Legazpi ekimenean parte hartu dute



50/50 programak Oarsoaldeko bost eskola publiko saritu ditu



Errenteriako "Familia Laguna" programan izena emateko epea zabalik



Hernani Natura Herria, Elizatxo, Txirrita eta Urumeako ikasleek parte hartzen duten proiektu pilotua



J.A. Mogel Ikastolak Rexcatering proiektuan parte hartzeko prestatzen ditu ikasleak, elikagaiak alferrik galtzearen aurka



Aginaga, Lardizabal eta Iturzaetako eskoletako ikasleek "Balearen bidea" proiektuan parte hartu dute



Mendaroko eskolak jostailuak eta eskolako materiala bidali ditu uholdeek kaltetutako Valentziako eskoletara



Amara Berri ikastetxeko gurasoen protesta, Realeko partidak egiteko orduak laburtzeagatik



Arrasate eskola publikoko guraso elkarteak saharar herriari laguntzeko kanpaina batean parte hartu du



Altxa burua Orio berriz martxan jarri da Guraso Elkartearen ekimenez



Eskoriatzako Luis Eceiza eskolak itxura berriarekin hasi du ikasturtea



Bidebieta Institutuko ikasleek bi film labur proiektatuko dituzte Donostiako Zinemaldian



Pasaiko Karmengo Ama haur eskolak "patio berdea" estreinatu du

BIDALI ZURE BERRIAK
BAIKARA@BAIKARA.EUS
HELBIDERA





MUSIKA GELA ARRANCA ESTA TEMPORADA CON FUERZA Y OFRECE MÁS DE 70 ACTIVIDADES

Alumnado de Azpeitia, Zumaia, Zarautz, Irun, Errenteria, Eibar, Andoain, Elgoibar, Itsasondo, Beasain, Lizartza, Zegama, Urnieta, Hernani o Ataun acudirán a los conciertos

Se trata de un ciclo con una tradición arraigada en la programación de Euskadiko Orkestra, que surgió con el objetivo de acercar la música a la ciudadanía en general, y al sector más joven de la sociedad en particular.

El ciclo presenta cuatro producciones propias esta temporada: Misterioa, Ilargiari kantari, Musika tantak y Logelan logale. Estas producciones se presentan en formato de Conciertos para Escolares y Conciertos en Familia, que representan la pieza central del ciclo. Pero además, Musika Gela amplía esta temporada los talleres realizados con FEVAS, continúa con los Ensayos Abiertos, y recupera para la Quincena Musical de Durango su producción propia de la pasada temporada Pantomima.

De entre ellos la colaboración entre la Euskadiko Orkestra y la Sección de Educación del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián se centra en la organización de los denominados Conciertos Escolares. Y, dentro de este programa, son tres los proyectos presentados en esta edición.

El primero de ellos 'Misterioa', tuvo lugar en octubre de 2024. Los otros dos son: 'ilargiari kantari' y "Logelan logale". En lo que a esta producción se refiere y, como novedad en esta edición,

el alumnado participará cantando en coros junto a la Euskadiko Orkestra.

Sobre la procedencia del alumnado podemos decir que son 44 los municipios guipuzcoanos con representación en los conciertos además de los procedentes de centros escolares de Donostia-San Sebastián. Proviene de casi toda la provincia y de municipios de distintas características, desde los más pequeños hasta los más poblados del territorio. Azpeitia, Zumaia, Zarautz, Irun, Errenteria, Eibar, Andoain, Elgoibar, Itsasondo, Beasain, Lizartza, Zegama, Urnieta, Hernani o Ataun son algunos de ellos.

Se prevé que en torno a más de 8000 estudiantes de educación infantil, primaria y secundaria acudan a los Conciertos para Escolares de estas producciones, alumnado de más de 100 centros escolares.

Año a año, Euskadiko Orkestra apuesta por elaborar producciones propias con guiones originales y espectáculos creados expresamente para ser estrenados en el marco de su ciclo educativo. En lo que resta de temporada se ofrecerán, además del ya realizado Misterioa, las siguientes producciones:

En 'Ilargiari kantari' se transitará por diversas melodías, como

obras populares de Guridi y Aita Donostia y canciones famosas de Chaplin, Howard, Morricone y Puccini. Se podrá ver en la sede de la Orkestra, para estudiantes de educación primaria el 13, 14, 17, 18, 19, 20 de febrero y para conciertos en familia el 15 febrero.

'Lolegan logale' es una iniciativa que forma parte del proyecto europeo ARTIS+, a través del cual se quiere impulsar el canto coral en los centros educativos. Esta cantata, se llevará a escena con un gran coro de niños y niñas de educación primaria en el escenario y en el patio de butacas. Se estrenará en el Kursaal el 13 y 14 de mayo.

Esta amplia oferta de conciertos se verá enriquecida con otras actividades. Tales como los Ensayos Abiertos de Musika Gela, dirigidos a colectivos, centros educativos, conservatorios y universidades, entre otros, que brindan la oportunidad de ver de cerca cómo trabaja nuestra orquesta en los instantes previos a un concierto.



Esta Temporada se ofrecerán tres Ensayos Abiertos:

• **15 DE NOVIEMBRE (11:00), KURSAAL:**

G. Fauré: Peleas y Mlisande Suite
R. Schumann: Concierto para violín

• **24 DE ENERO (11:00), KURSAAL:**

B. Arizmendi: Sorginen soinua
C. Saint-Saëns: Concierto para piano nº2

• **13 DE MARZO (11:00), KURSAAL:**

D. Glanert: Concierto para percusión



DESERAIKIZ, SEXU ANIZTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA ESKAITZEN DUEN PROGRAMA



Deseraikizeko kideak burubelarri dihardute azken hilabete hauetan Donostiako eskola desberdinetan Aniztasun Sexualaren inguruko formakuntzak eskaintzen. Izan ere, Donostiko Udaleko Hezkuntza sailaren eskutik hainbat zentro izan dira proiektu honetan parte hartzeko desira erakutsi dutenak.

Zehazki, Lehen Hezkuntzako 12 eskola eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4 ikastetxe jasotzen ari dira aniztasun sexualaren inguruko formakuntzak, eta guztira 34 gela desberdinetan eskaintzen ari da. Horien artean dira Harri berri-Oleta, Amassorain, Aiete, Ikasbide, Mendiola, Katalin Erauso, Jakintza, Arantzazuko Ama, Altza SJC, Zubiri Manteo edo Bideberri.

Deseraikiz entitatea da formazio honetaz arduratzen ari dena Donostiako Udaleko Hezkuntza atalarekin elkarlanean eta honen bidez aniztasun sexualaren gaia lantzen ari dira.

Proiektu honen ildoak jarraiki, adin tarte hauetan aniztasun sexuala lantzea ezinbestekotzat jotzen da; izan ere, geroz eta aniztagoa den gizarte batean bizi garen arren, oraindik ez da ulertu desberdintasun hauetatik eratorri daitekeen aberastasuna, bai indibidualki zein gizarte mailan.

Eskolak gizartearen islada direnez, maiz, bertan topa ditzakegu diskurtso mingarri horiek eta azkar zabaltzeko arriskua eta joera izaten dute. Horregatik, garrantzitsua da aniztasunarekin lotutako biziaren (norberarenak zein ingurukoena) positiboak izatea.

Programa hau, lehen aipatu bezala, bi adin terteei eskaintzen ari zaie; batetik, Lehen hezkuntzako 6. mailakoei eta, bestetik 2. mailako Bigarren Hezkuntzakoei. Lehen Hezkuntzakoei dago-

kienean esan daiteke desberdintasunak ikusmira positibo batetik lantzen direnean emandako balioa adin helduagoetan mantendu ahalko dela.

DBH 2. mailan aldiz, helburua bestelakoa litzateke. Beraien desirarekin topo egiten dute, gorputza aldatzen zaie eta zalantza eta beldur asko izaten dituzte zenbaitetan. Garrantzitsua da zalantzak argitzeko aukera ematea, eta gorputza eta desira arautik haratago ikustaraztea, beraien burua arbuia ez dezaten.





TOLOSALDEKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARRO PLATAFORMA

Tolosaldeko Euskal Eskola Publikoa Harro plataforma Aiztondoko Mankomunitatean aurretik egindako biderei jarraituz sortu da. Hainbat ikastetxe publikotako ordezkariak bat egin dute elkarte horretan, «egungo hezkuntza-gabeziei aurre egiteko eta sare publikoari babesa, indarra eta lekua emateko».

Plataformako ordezkarien hitzetan, Tolosaldeko ikastetxe publikoek kalitatezko zerbitzua eskaintzen dute eta ikasle guztien hezkuntza integrala eta gizarte-kohesioa bermatzen dute: «Herrietik eta herriarentzat sortua, guztiontzat; euskalduna, euskara ardatz duena kultura ezberdinen ulermenetik; hezkidetzan konprometitua kolore, genero, sinesmen eta iritzi aniztasunetik».

Horrela, Tolosaldea Euskal Eskola Publikoa Harro plataformak aurreratu du Hezkuntza Legearekin ados ez egotearen alde lan egingo duela: «Ez gara inor baino gehiago, baina ezta gutxiago ere, horregatik harro gaude izenez eta izanaz, gure herriaren



etorkizuna garelako». Plataformako kideek nabarmendu duteenez, Tolosaldeko 28 udalerrietatik hamazazpitan Haur eta Lehen Hezkuntzako herri-erakundeak daude sare publikoaren barruan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokionez, Aiztondoko Ernioeaba BHI ikastetxea alde batera utzita, Tolosako Orixe eta Alegiako Aralar dira aukera publiko bakarrak.

Eskualdea eta ibarraren orografia irudikatu nahi izan dute plataformaren logoa sortzeko orduan. «Mendiz inguratutako eskualde aberatsa delako gurea, gailur eguzkitsuek eta mendi-hegaletan dauden herriek osatua», adierazi dute. Hauek dira plataforma osatzen duten ikastetxeak: Albizturko Herri Eskola, Alegiako San Juan Herri Eskola, Alegiako BHI, Altzoko «Imaz Bertolaria» Herri Eskola, Berastegiko Muñagorri Herri Eskola, Bidaniko Txinkorta Herri Eskola, Ikaztegieta Herri Eskola, Lizartzako Herri Eskola, Tolosako Samaniego Herri Eskola eta Tolosako Orixe BHI.



“FAMILIAREKIN JOLASEAN” GABONETAN ERE

Programa honen helburu nagusia gurasoak beren seme-alabekin jolastea da eta beren denboraren zati bat haiekin pasatzea: Programa honek jolasa, dibertsioa eta harreman familiarak sustatu nahi ditu. Eta honen bitartez jolasek, jostailuek eta senitartekoeikiko harremanek, haurren nortasunaren garapenean duten garrantziak ohar-tarazi nahi da.

Programa, larunbatetan 17:00etatik 18:15era, honako Haurtxokoetan gauzatzen da: Aiete, Altza, Amara; Bidebieta; Egia; Gros; Intxaurrondo eta Martutene.

Programa honi esker, Haurtxokoetara 5 eta 11 urte (HH5-LH5) bitarteko haurrek beraien senitartekoekin, guraso zein anai-arrebekin batera joan daitezke bertan antolatzen diren jolas, tailer edo ikuskizunetan parte hartzera.

Hiruhilekoa hastearekin bat, haur eta gurasoei zuzendutako ‘Familiarekin jolasean’ programaren ekintza sorta berria aurkezten da. Ekintza hauen artean daude, besteak beste, Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartarekin bizi ohitura osasungarriak sustatzeko saioak, Literaktum txikiaren baitako ilustratzaileekin lan-tegiak eta Gabonak Zuretzat programaren barruan antolatutako jarduerak.

Eta guzti horien artean nabarmendu nahi ditugu Gabonak Zuretzat programaren barruan Gabonetako larunbatetan egingo diren ekintzak; hala nola, Aieten egingo diren gabonetako zintzilikariak; gabonetako bingo jolasak Amaran; familien arteko sukaldaritza lehiaketa Bidebietan; magia ikuskizuna Egian; errege opila Grosen; gabonetako trufak Intxaurrondon eta inuzente eguneko txantxa jolasak Martutenen.

Oraingoan gainera, Familiarekin Jolasean programak irudi berria estreinatu du, Ane Arzelus ilustratzaile gaztearen eskutik.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.donostia.eus/gazteria
943 481909

Familiarekin jolasean

5 - 11 urte eta familiak 5 - 11 años y familias

Udal Haurtxokoetan En los Haurtxoko municipales

www.donostia.eus/gazteria



Euskal eskola publikoaren jaiko online denda



Haurren kamisetak beltza



Haurren kamisetak beig



Nagusien sudadera beltza



Nagusien kamisetak beig



Nagusien kamisetak beltza

Egin zure eskaera ► jaia.eus/eu/denda

*Abenduan eskuragarri



errotu

euskal eskola publikoaren 32. jaia

AUKERATU ESKOLA PUBLIKOIA

Herritarren proiektu kolektiboa
Euskalduna Demokratikoa Laikoa

virgen de arrate lhi	aralar bhi	urkipe lhi	zubieta eskola lhi
elgeta lhi	arrasate bhi	aiete lhi	zuazola-larraña bhi
arreiturre bhi	aita iparragirre lhi	pelto errota lhi-asteasu	amaña lhi
elgoibar lhi	ipintza bhi	antigua-luberri bhi	oianguren bhi
bizarain ikastola lhi-bhi	pelto errota lhi	amasorrain ikastola lhi	urkizu lhi
cristobal gamon bhi	san juan lhi	sasoeta lhi	urdaneta lhi
koldo mitxelena lhi	ikaztegieta lhi	herrera lhi	san andres lhi
cristobal gamon lhi	san andres lhi	arri-berri-oleta lhi	juan zaragueta lhi
koldo mitxelena bhi	toki-alai lhi	landaberri lhi	san andres lhi
san martin lhi	txinkorta lhi	zuhaizti lhi	mogel ikastola
luis eceiza lhi	alkiza lhi	intxaurren hegoa lhi	karmengo ama lhi
ezkio-itsaso lhh	astigarrako herri eskola lhi	oriarte bhi	eibar bhi
balentzategi lhi	toki-alai bhi	ibai ikastola lhi	laiotz lhi
txalburu lhi	mendata bhi	domingo agirre lhi	plautxi lhi
iturzaeta lhi	imaz bertsolaria lhi	ikas-bide ikastola lhi	soraluze bhi
leizaran bhi	hirubide bhi	olazabal bhi	orixe bhi
aduna lhi	itziarko eskola - luzaro	jakinza ikastola lhi	felix samaniego lhi
txirrita lhi	zumadi lhi	ugaro lhi	egape lhi
murumendi lhi	eguzkitza bhi	orixe ikastola lhi	azkorte bhi
ondarreta lhi	luzaro lhi	lezo lhi	j.m.iparragirre bhi
elizatxo ikastola lhi	elatzeta lhi	aitor ikastola	gain-zuri lhi
beasain bhi	amara-berri lh	lezo bhi	aginaga lhi
lardizabal lhi	joxemiel barandiaran lhi	bidebista bhi	erniobea bhi
antzuola lhi	eguzkitza lhi	lizartzako lhi	dr.fleming lhi
hernani bhi	altza - s.j.c. lhi	igeldo lhi	lardizabal lhi
alkartasuna lhi	xabier munibe bhi	mendaro lhi	orokieta lhi
kurtzebarri bhi	belaskoenea lhi	mendiola lhi	lizardi bhi
basakaitz lhi	erauso katalin lhi	mutriku bhi	aixuri lhi
urumea lhi	xabier munibe lhi	lauazeta ikastola bhi	zerain lhi
j.a.muñagorri lhi	dunboa lhi	goizeko izarra lhi	b.aizarna lhi
kurtzebarri lhi	akza bhi	usandizaga bhi	zestoa lhi
talaia lhi	karmelo etxegarai lhi	elizalde lhi	arroa lhi
san martin aguirre lhi	txingudi ikastola lhi-bhi	intxaurren ikast. lhi	pedro m. otaño lhi
albiztur lhi	arantzazuko ama lhi	elizalde bhi	san millan lhi
arrasate lhi	urola bhi	zubiri-manteo bhi	oikia lhi
talai bhi	leka enea lhi	olaberri lhi	zumaia bhi
angiozar lhi	arantzazuko ama bhi	zubieta lhi	errekalde lhi

Konfidantzazko hezkuntza proiektuak
Berdintasunean ikastea askatasunean haztea delako
Gipuzkoako eskola publikoak ✓

baikara 

Gipuzkoako IGEen federazioa